



MADALENA JAUREGUIBERRY
(1884-1977)

Egilea:

PIERRE BERZAITZ

AMERIKARAT EUSKALDUNAK

Madalena Jaureguiberry Zibozen jaio zen 1884ko urriaren 13an eta han berean zendu 1977ko urriaren 20an, 93 urterekin.

Bere aita deitzen zen Alexis eta ama Dorotea, biak zuberotarrak. Alexis gazterik joan zen Argentinarat anaiarekin, beste euskaldun anitz bezalaxe. «Etxekoak “Amerikaiñak” zütian, Eüskaldün hanitxek bezala» dio Madalenari buruz Jean Louis Davant euskaltzainak.

Ameriketa aurkitu zenean, han ziren hego aldeko euskaldunak Kristobal Kolonekin batera. Geroztik handiki, merkatari eta aitonenseme bat baino gehiago heldu zen lurralde berri haietara. Baina, Espainiako inperioak porrot egiten duenean eta Ameriketara aurkitu eta menderatutako lurraldeek independentzia lortzen dutenean, samaldan abiatzen dira, XIX. mendean, hego eta ipar aldeko laborari eta eskulangileak, bizimodu hobearen bila.

Lurralde haietan jendea behar zuten. Hemen, berriz, sobera zen, baserria

semerik zaharrenarentzat izan ohi baitzen. Bestelako lantegietan ere ez zuten soldatapeko lanik maite. Abentura eta diru bila, bizimodu hobearen ametsetan, gerlei, gerla ondoetako mendekuei eta soldaduskari ihesi hedatu ziren euskaldunak Kanadatik Patagoniaraino.



Gaztetako argazkia.



Alexis eta Dorotea, Madalena Jaureguiberryren aita eta ama.

Río de la Platarako, batez ere Argentinarako, joera hartzen dute 1830 aldera. 1850 aldera hasten dira Kalifornia eta inguru haietara. Bigarren Mundu Gerraren ondotik, berriz, Estatu Batuetara jotzen dute gehienek. Espainiako gerlaren ondotik, jakina, bazter guztietara zabaldu ziren, 200.000 inguru, Britainia Handira, Belgikara, Holandara, Estatu Batuetara, Mexikora, Venezuelara eta abarretara.

Jendetza handiak joan ziren iparraldetik ere Argentina aldera

hemeretzigarren mendean. Hogeigarren mendearen hasieran hasi zen gutxitzen. Hala ere, 1905ean, iparraldeko 3.500 euskaldun eta bearnes iritsi ziren Argentinara. Horretarako baziren iparraldean itsasontziak, besteak beste, Apesteguy anaiak, Brie eta abar kapitain zituztenak.

Lau milioi bizilagun zituen Argentinak garai haietan. Euskaldunak, berriz, 137.000 hurbil ziren. Eta urruti haietan ere euskal jatorriari eta ohiturei eusten saiatzen

ziren. Buenos Airesen bertan bazuten *Lurak bat* elkarteak, 1877an sortua. Hantxe irakasten zuen euskara Pello Mari Otaño bertsolariak. Modua zutenak, berriz, joan-etorriak ere egiten zuten, jakina, Jaureguiberry familiak bezalaxe.

Nonahikoak zirelarik ere, euskaraz mintzatu ohi ziren beren artean. Euskarari eutsi zioten ezagunenetan, Otaño, Jaureguiberry eta abarren artean, Jean Etxepare, Aldudeko mediku idazlea, dugu. Eta merezi luke aipamentxo bat hemen. Buenos Airesen 1877an jaioa, haur zela itzuli zen familiarekin sorterrira. *Eskualduna* eta *Gure Herria* aldizkarietan idatzitako artikuluez argitaratu zituen *Buruxkak* eta *Berebilez* liburuak.

Jean Etxepare betiko itzuli zen Euskal Herrira. Espainiako gerla baino urte bete lehenago hil ez balitz, Francoren erasoari ihesi joan zirenei aterbea eskaintzen jardungo zuen, ezpairik gabe, Madalena Jaureguiberryekin batera.

BEDERATZI HAURRIDE

Beste euskaldun anitzek bezala, Alexis Jaureguiberryk ere emeki-emeki lan kostuz eraiki zuen bere etxaldea, *Robinson* deiturik, Buenos Airesetik hurbil.

Bederatzi haurrideak
Bidajant eta ausartak
Oro pürki Eüskaldünak
Sor leküari etxeikiak.

Bederatzi haur sortu ziren familian: lau mutiko eta bost neska: Jean, Madeleine, Alexis, Arnaud, Margarite, Marie, Antoinette, Clément eta Denise. Gaur egun ere familia handia da eta mundu guzian herrekatzan dira Alexis eta Dorotearen ondokoak.



Alexis eta Dorotea gurasoak Jean, Madalena eta Alexis seme-alabekin, Buenos Airesen, 1885ean.



Alexis aitaren besoan, Clément; Dorotea amaren besoan, Denise; bien erdian, Antoinette; aitaren eta amaren atzeko tartean, Marie; aitaren eskuin aldetik, Marguerite; atzeko lerroan, Jean, Madalena, Alexis eta Arnaud.



Jaureguiberry anai-arrebak amarekin: goiko lerroan ezkerretik, Denise, Antoinette, Clément, Madalena, Marie eta Marguerite; eserita, Jean, Dorotea ama, eta Alexis apeza.

Madalena zen alabetan gehiena edo zaharrena eta ezkondu gabe bizitu zen *Sibasian*, familiaren etxean. Zibozeko herria Atarratze ondo-ondoan dago, Iruri eta Ozaze mugakide dituela. Etxeko leihotik Madalenak ikusten ahal zuen Zuberoa guzia: alde batetik, Madalena mendia; bestetik, Erretxu, Sobe eta bost mendiak; urrunago, Ori eta Ahuneko bortuen elur eztiak.

Euskarari eman dion amodio sakratua ez zaio sekulan epeldu bizian eta tai gabe gogoz eta obraz euskal usantzen edo ohituren argizale eta defendatzaile bizitu da Madalena gure Zuberoako Anderea.


Madalenaren bi anaia abertzale ziren: bata, Jean, Donibane-Lohizunen mediku egona; eta bestea, Clément, enpresa baten eramailea.



Etxeurrea.

Clément-ek «Un peuple et une langue pas comme les autres» eta «Le verbe basque souletin» argitaratu zituen *E. Jakintza* aldizkarian, 1953an eta 1957an.

Jean 1880an jaio zen. Soldaduen mediku izan zen lehenik, Donibane-Lohizuneko gero. Medikuntzako lanez at, euskara eta euskal gaiak zituen gogoko. Euskaldunen gorpuzkera nolakoa zen adieraziz «Le Basque Moyen» izeneko lana argitaratu zuen 1929an. Urte horretan hasi zen *Gure Herria* aldizkarian bere lanak euskaraz eta frantsesez argitaratzen. 1952an kaleratu zuen Baionan, aldizkari horretan idatzitako 14 artikulurekin, *Basabürüan* izeneko liburua. Euskaltzaleetasunak eraginik, *Euskaltzaleen Biltzarreko* kide eta batzordekoa ere izan zen. Baita 1930 aldera *Aitzina* euskal taldekoa ere. 1952an hil zen Zibozeko *Karrikia* sortetxean.



Gutun asko idatzi zizkion Lafitte kalonjeari.

ARGENTINAN IRAKASLE

Kurritürrik Argentinan
Robinzoneko funtsetan
Ohatü zen Zuberoan
Ait'etamaren etxean.

Bost urtetarik, Buenos Aireserat joan ohi zen Alexis Jaureguiberry. 1906an, ikasketak amaiturik, Madalenak lagundu zuen eta han irakasle hasi zen Buenos Aireseko haur ahuldunei frantsesaren ikasteko. Gero, bere ahizpak ere etorri ziren ber xedera. Arnaud anaia, aldiz, sortetxean geratu zen lanean.

Hola bizi zen familia Zuberoan eta Ameriketan, 14ko gerla arte.

Azkenean zaikü eztitü
Gerlaren auhen pezüa.
Ama, nola da posible
Hainbeste aberekeria?

Jauna, eraman deiztatzüt
Aita eta senargeria.
Zer nahi düzün nitarik
Orain errazüt otoia.

Argentinatik berriz Zuberoarat sartu zen Madalena 14ko gerla hatsarrean, bere gerrian urre eta hainbat diru familiaren beharrentzat. Erizain bezala arrolatu zen, bere anaiak zirelako soldadu. Gerla urrentzean aita hil zitzaion eta bere senargaia ere bai, nonbait, Verdunen.

Gero apezpiku izan zen Jean Saint-Pierre idazleak, hango soldadu zelarik, gerlako kronika asko idatzi zituen *Eskualduna* astekarian. Besteak beste, Verdun aipatzen du anitz. Piarres Xarritonek «Klasikoak»



Eliza horretako meza eta otoitzetan indartu zuen fedea Jaureguiberryk.



Gerran hildakoen oroitarria San Martin eliza.

sailerako paratutako *14eko Gerla Handia* izeneko liburuan sarri egiten da topo hango aipamenekin.
«Verduneko gudu izigarri hura (...) gerla dorphea zen oihan huntan, gerla beltza, neguan bereziki, lohiarekin ez baita bizitzerik holako tokietan».

Euskaldunak ere ugari ziren han, Frantziaren alde eta alemanen kontra. Hala dio Saint-Pierrek: «zenbeit erreximendu guztiz gehienik euskaldunak dire. Hala nola, 142garrena». Baita gogor burukatu ere, nonbait. «Aintzindariak diote goraki hobenetarik direla eskualdunak. (...) Ezinbertze gorririk balin bada nonbeit, jo harat eskualdunak! Verdun hortan ziren, jeneral nausiek etsitua zutelarik, Castelnaud jira baita beharrik aski goiz hiriaren gerizatzeko eta zaintzeko, pausuan zauden soldado hoberenekin. Eskualdunak ditu

hautatu, eta eskualdunak utzi Pétain aipatuari. Alta gure herritar gaizok bazuten ordukotz zerbeit, zerbeit eginik! Ez dauzkate behin ahantzirik Verduneko inguruetan jasanak eta erabiliak. Eta nehork jakitekotz, 142.eko eskualdunek dakite “côte 304” delakoaren berri».

Sekulako sarraskiak eta hilketak egin ziren Verduneko gudu hartan galdu zuen Madalenak ere maite zuen mutila. Gehiago ez zen, nonbait, maitemindu eta, ez zen ezkondu. Bere bizi ondarra *Sibasian* familiaren etxean pasatu zuen.

7



Elizako aldea.



Sarrerako ate gainean *Sibasian* etxearen izena.

BEGIRALE MUGIMENDUAREN SUSTATZAILE

Ikusirik gure karrikeetan
Jentea erdaltzen ari,
Ikusirik gure herrietan
Etxeak husten ari.

Begiraleak kanta Herria
Aitorren amore gatik.
Zer lizateke Euskal Herria
Ez balitz Euskaldünik?

Piarres Lafitte kalonjearen oldarrean
sortzen delarik 1932-35 aldean
Euskalherri-zaleen mugimendua,
Madalena Jaureguiberry eta Jean bere
anaia kide kartsu dira bertan eta
Aintzina agerkarian idazten dute biek
zubereraz, artikulua bat hilabete guziaz.
Gero, Jean-ek asko idatziko du

bereziki Espainiako gerla zibil
denboran kuraje handi batekin *Gure
Herria* aldizkarian, euskaldunen
botzaren entzunarazteko gisan.



Aintzina agerkarian asko idatzi zuen Madalena Jaureguiberryk.



Begiraleak taldea, 1942an.

Donibane-Lohizunen sortutako *Begiraleak* elkarteak 1934an batu zen Zibozeko «Senda zaharrak» izenekoarekin. Madalena Jaureguiberry 1935etik goiti izan da *Begiraleak* mugimenduaren lehendakari eta sustatzaile bikaina.



Madalena Jaureguiberry Licq-Athereyko kantu-lehiaketan 1957an.

Zer ziren *Begiraleen* helburuak? Euskal antzerkia eta euskal kultura lantzea. Emazteen botza edo botoa, euskara, fedea eta ohiturak bultzatzea eta haurrek beren hizkuntza bezala mintza daitezela euskara lortzea.

Mugimendu horren inspirazioa eta izpiritua, dudarik gabe, Bilbon sortu zen, *Emakume Abertzale Batza* organizazionean. Emazte elkarte horrek ideia aitzinatuak plazaratzen eta defendatzen zituen iparraldeko Euskal Herrian, ez zelarik partikularki 1930eko urtetan agertzen hain modernoa.

Dena den, arrakasta handia ukan zuen *Begiraleak* mugimenduak eta, hogeita hamaika talde antolaturik, iparraldeko herri nagusietan lan asko egin kultur sailetan: euskarazko ikastaroak, antzerkia, kantua eta abar.



10

Heben hautetsi gehienak
Züetaz dir'ontsa «futitzen»
Lehen lehenik Euskaldünak
Franco-ren alte mintzatzen.

Espainiako gerla zibila hasten delarik, Madalenak hegoaldeko euskaldunen alde hartzen du ahoan bilorik gabe Jean bere anaiarekin. Memento hartan hautetsiak eta eliza (Lafitte kalonjea eta beste bakant zenbaitez aparte) Francoren eta Molaren alde direlarik, argi eta garbi eta beharrik holako zenbaitek Iparraldearen ohorea salbatu dute.

Francotarren erasoari ihesi, Agirre lehendakariak eta beste zenbaitek diotenez, 150.000 aterbetu ziren Frantzian. Haurrik gehienak Ipar Euskadin kokatu ziren, etxeetatik eta ahaideetatik hurbilago geratzen zirelako eta hizkuntza eta ohitura bereko herriak zirelako. Nahiz eta haurrak izan, iparraldeko politiko eta elizgizon gehienek muzin egin zieten gorriekin elkartutako euskaldunen seme-alabei. Haurrak ez zirela ez xuriak ez gorriak ohartarazi zuen Lafittek arrazoinekin.

Dena den, Frantziako herrialde anitzek gizabide gehiago erakutsi dute haientzat ipar Euskal Herriak baino. Ez dezagun hori ahatz eta ber denboran ez ere Atarratze, Armendaritze, Jatsu edo Donibane-Garaziko (horien baizik ez aipatzeko) hautetsi bakar zenbaiten laguntza miresgarria.

Madalenak ezinago lastimagarri sentitzen zuen injustizia handi hori eta egin du beti bere ahalaz goiti munduaren aitzinean ezagutarazteko zer zen orduko euskaldunen egoera gogorra.

Horren karietara, argitu eta bere gain hartu zituen orduko idazle eta jakintsu katoliko famatuak: Bernanos, Mauriac, Maritain. Erroman ere izan zen Mateo Muxika gotzainaren ikustera, pertsuna horien gutun bereziak eskuetan.



Madalena Lafitte
apaizarekin.

EUSKARAREN ARGIZALE MIRESGARRIA

Euskararen mintzatzea
Harentzat beharrezkoa
Bera zen irakaslea
Ez beti ontsa ikusia.

Idazle, kazetari, irakasle, euskararen sustatzaile, iheslarien babesle, iparraldeko emakume euskaltzale eta abertzaleen bultzatzaile eta abar izan da Madalena Jaureguiberry.

Eskiula herriak pastoral bat eman du aurten Madalena Jaureguiberry gogorarazteko eta goraiatzeko. Allande Sokarrosen ustez, ordea, Madalenak ez du aski gai eta merezimendu: «Ez naiz batere ziur Maddalen Jauregiberriren biziak eta lanek pastoral baten gaia emateko zioa zeukatenik. Zibozeko andere hau frantximantek, erran nahi baita euskaraz ez dakitenek, moldatutako mito bat da. Haren merezimendua, nolabait esatearren, euskaltzaletasuna

11



Eskiula herriak pastoral eskaini dio aurtengo udan.

12

eta abertzaletasuna nahiko ahul agertzen ziren garaietan euskararen eta euskal kulturaren sostengazale egotea izan zen. Baina, Maddalen Jauregiberrik arras gutxi zekien euskaraz eta are gutxiago mintzo zen gure hizkuntzan. Beraz, funtsik gabeko mito batez egingo dute pastoral bat eta mitoari hats berri bat emango badio ere, errealitateak, herritarren gomutan, bere horretan jarraituko du» (*Jakin*, 1999-azaroa-abendua, 115).

Eskiulatarrek ez dute iritzi bera. Ez eta Eusko Ikaskuntzak ere, omenaldi beroa eskaini baitzion Maulen aurtengo irailaren 21ean. Euskaltzaindiak, berriz, «Emakumearen Urtea» zela eta, Gabriel Arestiren proposamenez ohorezko euskaltzain izendatu zuen Madeleine Jauregiberry ziboztarra,



Madalena Jauregiberry, aldizkari bateko argazkia.

1975eko ekainaren 27an, Julene Azpeitia zumaiarrekin eta Tene Muxika debarrarekin batera.

Hala aitortu zion Madalenari egun hartan Luis Villasante euskaltzainburuak: «Zuberoako Alos-Sibasen jaioa. Eskola irakasle edo maestra hau ere. Euskerari buruz Frantziako egunkarietan asko idatzi du. Euskeraz eskoletarako testuak, diskoak eta irakaskintzan lagun dezaketen lan baliotsuak ditu argitaratuak». Eta jarraitu zuen, «Ikusten duzueenez, hirutatik bi eskola maistra ditugu. Inon euskera gaur presente egotea beharrezkoa bada, etxean lehenbizi, noski, baina gero eskolan eta irakaskintzan egon beharko du. Alde hortatik ere eredu, ispilu eta bide erakusle ditugu gaur hemen oharatzen diren andre argi hauek» (*Euskera*, XXI-1976).



Behebarruko gela handia, altzariz betea.

Mirakuilu bat, Zikoitza eta *Euskaldunenen jauntziak* antzerkiak idatzi zituen Jaureguiberryk. Hala ere, ez du bilduma berezirik argitaratu. Baina ehunka artikulua idatzi ditu agerkerientzat. Batari eta besteari idatzitako gutunak ere asko ditu. Adibidez, Lafitte kalonjearekin eraman du korrespondentzia handia 1930etik goiti.

Argentinan igarotako bost-sei urteak izan ezik, beste guztiak Euskal Herrian egin ditu. *Herria*, *Gure Herria* aldizkarietan eta *Basque Eclair* eta *Sud-Oest* egunkarietan asko idatzi zuen euskararen alde. Zuberoan bi astetarik argitaratzen zen *Miroir de la Soule* («Zuberoko Bizia») kasetan, berriz, hogeita bost urtez agertu ziren haren artikulua. Lehenik, *Chiberotarra* izenordeaz sinaturik, gero *Basaburutarra* eta azkenean bere izen-deituraz.

Agerkari hauetan denetan idatzi zuen Madalenak. «Miroir de la Soule»n, berriz, hamabostero, 25 urtez.

Pierre Udoy kazeta horren zuzendariak erraiten zuen nehoiz Madalenak ez zuela huts egin eta astelehen guzietz heltzen zitzaizkiola arraheinki, kontu handiz, Madalenaren berriak.

Pasione handia zion Madalenak zubererari, Zuberoako euskarari.

13



Emmanuel Inchauspe kalonjearen *Le Verbe Basque* gramatika eskuetan ukanik, Clément bere anaia gaztearekin ikertu zuen Zuberoako aditza matematikaren bidez. «Etudes synthétiques du verbe souletin» izeneko liburuan bildu zituzten beren ikerlanak. Hala aitortzen du Madalenak Inchausperen lanari buruz: «Lan izigarri hori erori zeyon eskietara ene anaie bati. Etzen sekulan euskarari interesatu, matematikak maite zutian gizon bat zen. (...) Berexkunderik gabe etzian ene anaiak lan hori egin ahal izanen, ezpalu ukhen bistaren aintzinian Inchauspek egin lan izigarria. Harekin egintüt lehentze ezagutziak xiberotar aditzarekin, orain direla 15 urthe. Ezarri dütüt ene anaiak atxeman khortxeletan xiberotar aditzaren hitzak oro, lerrokatzen dira ordrian legeen berexkunderik gabe» (*Euskara*, XXI, 1976).

Miroir de la Soule agerkarian ikusi ahal izan ditugu Madalenak ezarri ikasgaiak. Zuberotar anitzentzat hor izan dira euskal ikastaro bakarrak.

Baina bere bizitza baino luzeagoa zen zubererari zion amodioa eta opa zion bizia. Hil aitzinean, Junes Casenave-Harigile jaun apaizari eta pastoralgile ezagunari eskatu zion jarraiki lezan Zuberoako aditzaren ikertze berezi hori.



Madalena de Jaureguiberry pastoralaren azala.



Madalena Jaureguiberryri buruz Junes Casenave-Harigilek idatzitako artikulua.

ANDEREÑO ETA EUSKALTZAIN

Zuberoan, dudarik gabe, Madalena Jaureguiberry izan da gure belaunaldiko lehen andereñoa. Altzaiko eta Lexantzüko basaburutar edo baserritar anitz oraino ohartzen dira eskola pribatu katolikoetan Madalenarekin egindako ikasturteez. Antzerki eta kantua ere ikasarazten zizkien hurrei. Besteak beste, Lafontain fabulistaren ipuinak Jean Fabien Hastoy errejentarekin itzulirik antzezten zizkien.

Iparraldeko eskoletan euskara irakasteko metodo bat ere egin zuen, Pabeko Hezkuntza Ordezkaritzak onartua. Euskararik ez dakien irakaslea ere balia daiteke metodo honetaz. Kantuak eta euskarazko eta frantsesezko testuak dituen diskoan argitaratu zuen metodo hau.

Frantziako hezkuntza sistemako kide ez izan arren, «Les Palmes Academiques» saria eman zion Frantziako Gobernuak.

Baina ez zen Madalena Jaureguiberryk merezi izan zuen sari bakarra izan. Euskaltzaindiak, lehendik urgazle zena, ohorezko euskaltzain hautatu zuen, 1975ean.



Madalena Jaureguiberryk, Frantziako gobernuak emandako «Les Palmes Academiques» domina jasotzen du, 1969an.

16

Madalenak zuberotarren aberastasuna eta mintzaira ezinago garbia eta «sabanta» azpimarratu zituen Donostian ohorezko euskaltzain agiria jaso ondoren egin zuen mintzaldian.

Banakian bethi entzunik euskara zinez aberats den mintzaire bat dela, anaie zenarekin dut konprenitu haren amiragarritzko aditza. (...) Ukhen dut okasionia erraiteko xiberotar saldo bati zer profesur sabantak diren etxequak beren etxetan. Aski zaye xingleki mintzatzia, xingleki! Hitz hori lehentze entzun dut erraiten Zunharren, Jundani Phetiri egun batez meztatik elkhitian. Erran nian emazte eli baten aintzinian, egia beitzen: zer pherediku ederra entzun dugun. Bai ihardetsi zeitan

emazte batek, gure jaun erretora xingleki mintzo zikuzu, guk konpreni gisa. Eneyo arraposturik eman, enundian sinhetsiko erran baneyon etzirela katedralean pheredikariak hobeki mintzatzan.

Erran nien ere xiberotar behazaler, nahi izan bazunie jin nendin phastoralzale behar nündükezien denboratan khumitatu, hala mintzo zideya ziren artian. Bai, bai, ihardetsi zeitaden badakizieya zer emaiten diren hitz horiek frantsesialat: «Si vous eussiez voulu que je vinisse à la pastorage et aurait fallir que vous m'invitassiez ó tempes!» Eztira Parisen frantsez profesur sabantak hobeki mintzatzan beren etxetan, etxequak dira profesur sabantak (*Euskera*, XXI-1976).



Madalena domina paparrean, André, Gerard eta Jacquesek inguratuta.

HARI ENTZUNAK

Zuberoa, euskara, euskal nortasuna, euskaldunen pairamenak eta abar oso gogoan zituen Madalena Jaureguiberryk. Entzutekoak dira euskararen aldeko aldarrikapenak eta arrangurak.

Mirakulu handitzat du zuberera: «Zer mirakuilua beharrez beharri gutara heltu den hontasun inestimabilia».



Antoinette, Marguerite eta Madalena ahizpak.

Eta ez du galtzerik nahi: «Katedrale eta jauregi zaharrentzat baduzu diru. Hobe. Bena gure Zuberotarra ez ote dea harriak bezain beharrezkoa eta humanitatearen hontasun handienetarik bat!»

Jakina, hurrei euskaraz irakasteko eskatzen du: «Etxen eta elizan puru (gutxienez), eta gero eskolan haurrer ikas». Eta euskaraz sobera eta frantsesez motz geratuko diren beldurrez direnei «euskaraz hain sabantki mintzo zira eta hain paubreki frantsesez!» erantzuten die.

Hala ere badu esperantzarik. Baikor mintzo da Donostian:

Aphezek elizan, errejentek eskolan laguntzen batie haurrak, etxetik kanpora direlarik, esperantza ukheiten ahal du Xiberuak, aitzina ere jerraikiko diala bethiko bide xuxena –erranik izan ahal dadin geruan ere– bethi aintzina xuxen xuxena dabila euskalduna (*Euskara*, XXI- 1976).



Duffus, New York egunkariko zuzendariarekin Madalena, Marie eta Antoinette.

Asko pozten da zubereraz bi katixima agertzen direnean: «Azkenekoz Jinkoaren botza gure mintzaje ederrean» egiten du hasperen.

Badaki nor den euskaldun, nonahikoa eta nahi duen kolorekoa delarik ere. «Euskalduna zira» galdetu dionari laster erantzun dio, «bai eta zu ere ni euskaraz mintzo zirenez gero».

Baina ez da euskararen egoeraz eta etorkizunaz bakarrik arranguratzen, baita euskaldunen pairamenez ere. Euskaldunen kontrako erasoek eta gezurrek mintzen dute. Laido asko irakurri eta entzun ditu hegoaldeko haurrideen kontra. Ezin du eraman «euskaldunak kalomniaturik» izatea.



Gela handiko aulkian eserita.

Euskaldun fededun da Madalena Jaureguiberry. «Fedea eta mintzajea elgarri josirik» izatea nahi du. Horretan saiatuko da bizitza osoan fede handiko pertsona denez.

Baina aurrerapenik ez du arbuizatzen. Magnetofonoari sekulako abantaila irizten dio, eskolarako eta eskolan euskara irakasteko batez ere: «Zer gaiza izigarria! Hunekin lan eginen dizigu eskoletan».

Janari onei ere eskerrik ematen die. Piperra eta janbu maite ditu bereziki: «Piperada eta jambu, erregeen plata!».

Hala ere, osasuna eta bihotzeko poza dira gehien maite dituenak: «ezta huntarzunik osagarria bezain baliusik eta ez plazerik bihotzaren kumentamentia bezalakorik».

HILONDOKOAK

Atarratzen egin zitzaizkion hiletak 1977ko urriaren 20an hil zen Madalena Jaureguiberry Zuberoako Andereari. Jende anitz hurbildu zen elizara, alde guzietatik, ahaide, lagun eta ezagun asko baitzuen Madalenak. J. L. Aguer jaun erretoreak egin zuen predikuan euskararen alde burututako lanak goraipatu zituen eta basamortu lehorrean egindako oihuentzat belarriak gor izatea gogoratu:

Andre Maddalen.

Zure aurhide eta adixkideekin, amodiozko elhesta bat oraino zuekin igan nahi ginikezu. Amodiozko eta esker hunezko elhe aldi bat... Gure

aintzinian xenda bat zabaltu duzu eta artzain hun bat bezala deitu gutuzu. Zure hitzek eta zure erakaspenek, gure herriaren eta mintzajian althe, amodiozko su bat gure bihotzetan phiztu deikie.

Luzaz gure beharriak, zure oihier gor egon tutzu... Luzaz desertu idor batetan oihu egin duzu eta oroek badakigu zer izan den zure ahal gabertazuna.

Zunbaitek ere errigei luzaz etxeki zutie. Bena zu bethi zure sailari aitzina ari zinen. Kharrika eta kharrikaz gainti ibili zirade oihustatzen zunilarik, euskararen gerua ait'etamen eskian zela.


Hilobia.



Jean Louis Davant euskaltzain zuberotarrak ere arrangura bertsua agertu zuen Euskaltzaindiaren batzarrean egin zion hilondoko goratarrean. Eta Madalenaren euskararen aldeko oihua entzuna izan dadin nahiko luke.

Ohorezko euskaltzaina günian, oso güti baitira holakoak. Desertian oihüstatü diana izan da, lüzaz, Jondane Batista bezala. Baina hunek, andere Madalenak, ez dü sekülan büria galdü. Eta, balinba. Azkenian entzünik date Xibero gaixo huntan. Bagünüke zerbaiten beharra!

Azkenik, Itxaro Borda idazleak «Euskaraz orano» poesia eskaini zion Madalena Jaureguiberryri, euskararen aldeko lanak eta, batez ere, haurrak euskalduntzeko ahaleginak aitortuz eta



Madalenak argitaratu zuen azken artikularen sinadura.

eskertuz. Izan ere, hura hilik, «eskolak eta plazak mutu dira denak».

Idatzi zuan umil Ziboztar lehenak Etxen baizik atxikiz euskarak auhenak Segurak zutuala entzun haren penak Eskolak eta plazak mutu dira denak.

Madalenaren hasperen egarriz Eraik dezagun berriz lurrez eta harriz Euskararen etxea plazara ekarriz Eta haurrak euskaldun eskolan ezarriz.

Halaz ez dugu galduko Euskal hitzaren bidea Ez eta ez salduko Madalena adiskidea.



Madalena, hanka hankari emanda.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Madalena Jaureguiberryren familia.*
- *Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusia.*
- *Bidegileak bilduma.*
- *Añamendi. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2000ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: Rali, S. A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S. A.
Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1616-6 (Obra osoa)
84-457-1618-2

L.G.: BI-3083-00

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística